

ABOTS EDER AMESGARRI BAT

Plorentzio Konstantino bizkaiatarra daukagu gogoan eta Aguado ta Goiriena'tar Julio'k ondo ezagutzen dau abots zolidun edo tenore au.

Bilbao'ko Udaletxearen jakintza-laguntzagaz ogei ta bost urtean emon eutson lanari Aguado Jaunak, bere ekiñagaz Plorentzio Konstantino Bizkai'ko Enkarterrian jaiorearen bizitzea argitaratzeko.

Argitaratu aurretik jakin-bearrekoak iru gauza oneixek dira: Plorentzio'k gizaldi onen asikieran, jardun-aldi bakoitzeko milla dolar irabazten ebazala; bere dirutzaren %80 txiroentzat emoten ebala; eta Italia'ko Karuso ospetsuari abotsean norgeiagoa egiteko eupadea egin eutsala.

Ortuella'n jaioa zala esan dabe batzuk, beste batzuk diñoenez Bilbao'ko Bixente Deunaren Txadonean bateatua da. Plorentzio berak Buenos Aires'eko izparringi baten Ortuella'koa zala diño. Au onartzeko autorpena da, beste aldetik ziurtasun aundiagorik ez dagoan artean.

Batzuk eres-zalea ta arlo onetan oso trebea zala diño, beste batzuren eritxiz, oster, ori ez da gauza ziurra.

Bere ume-denporan Euskalerrian meatz-toki baten egiten eban lan ura igaroten.

MAITASUN-EDESTIA

Zelan eldu zan lanbide orretatik abes-zaletasunera?

Neskatilla zoragarri bat aurkitu eban bere bizitzearen bidean: Arrigorriaga ta Larrazabal'dar Luzia. Baiña neskearen gurasoak ez eban onartu matemini ori eta orregaitik bikoteak iges egitea erabagi eban: Itxas-ontzian sartu eta Ameriketara joan eta an, biak kristiñauak ziran lez, eleizaz ezkondu ziran. Gero gogor lan egin bear lan eban, erbesteko bizitzeari aurpegia emoteko.

Konstantino Florentzio'k erri-abestiak abesten ebazan, beste langille batzukaz batera, bazkal-ostean, atsedeen-aldian. Abade batek eta Palazuelo'ko Bibolintari batek esan eutsoen, abesti-gaiak ondo erabilteko, oiñarriz ikasi bear zirala, eta gure Plorentzio'k orixe egin eban.

SANPETERSBURGO'N

Ondo ikasitako abestien bilduma edo txortea aundia ta zabala zan, baiña ez eban lortu nortasun berezirik, ez eukan berarizko izakerarik. Esan-bearrean nago, (eta au jakin-bearreko gauzea da) an Ameriketara Luzia bere andratxuagaz alkartzen zanean otoitz egiten ebela eta euren otoitzetan iñoz ez ebela aitzuten. Begoña'ko Ama.

Ploro Konstantino'ren abotsa abots-gorena edo tenora zan, eta bera izan zan joan dan gizaldiko belkantista eskolatu on bat: Abots lirain, txairo, bero betea ta gozoa, amets zoragarritz entzutekoa, neurri bako samurtasunez giza-biotzetara sartzen zana.

Madrid'en ondo urten jakon itun baten ostean, Europan zear ibilli zan eta Errusia'ko uri nagusia dan Sanpetersburgo'n be garaille urten eban. Antxe artu eban bein eta betirako "sorbaldakoa". Bera zan Kaiser'entzat abots-gorenik onartuena. Eta gaiñera, Sanpetersburgo'k Italiagaz aldi areitan Antzerki-abestuen arloan artu-emon onak eukazan. Ondo jakiten ziran abeslarien garaipenak eta utsegiteak.

Jazoriko gauzea ete da bein baten Konstantino'k Karuso ospetsuari norgeiagora eupadea egin eutsala? Antza dagoanez, egia da eta eres-aztertzaile batzuk asi ziran esaten Plorentzio'k obeto adierazten ebala eresa.

Puccini'k Manon'en asierea leporatu eutson Prantzia'n. Iparrameriketako arduradunak dei egiten eutsoen eta bera joan egiten zan, ain bide luzea egin bear izan arren. Ez dakigu Karuso'k ori zelan ikuten eban... Dana dala, sarritan abeslarien arteko gorabeera oneik bide bat izaten dira antzokietara jentetza aundiago ekarteko. Ori ondo dakie arlo orretako buruzagiak.

BULAR BARRUKO DO ERESKIA

Len aitatu dogun Julio Aguago Goiena'k abeslari onen bizitza idatzian eskuak zerura jazoten dauz au gogoratzen dauanean: Plorentzio Konstantino'k abots gorena erabilten ebala dardara barik jatsi eta goratzen me-zoliaz amaituz, bular-barruko do ereskia abesten ebanean.

LETONA'K



BERBALDIA TA OMENALDIA (Augustin Zubikarai)

Augustin Zubikarai ondarrutarrak egun aundi bi ospatuko dauz bere jaioterrian.

Lenengoa irailaren 19'an. Egun onetan Augustin'ek Euskerazaintza'ra sartzen diranak egin bear daben berbaldia egingo dau Ondarroa'ko Kultur-Etxean. Gaia: Arrantzaleen itzak eta esaldiak. Akademi-giroko berbaldi oneri erantzuna emongo dautso Arrinda'tar Anes'ek.

Bigarreña urrillaren azkenerantza izango da. Ondarroa'k erri lez Omenaldia eskiñiko dautso Augustin'eri eta erriko kale bateri bere izena ezarriko dautso.

Zorionak, Augustin!

EUSKERAZALEAK